

## **1999KO MARTXOAREN 5EAN GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Bost

**HILABETEA:** Martxo

**URTEA:** Mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzia

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko zortziak eta berrogeita hamabost.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Lau (4)

**MAHAIBURUA:** Jon Jauregi Bereziartua

**BILDUAK:** Arantza Aseginolaza Azkargorta

Jose Luis Elorza Mujika

**ETORRIGABEA:** Jose Ignacio Insausti Mujika

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

### **1- AURREKO AKTA**

1999ko otsailaren 4ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da inolako aldaketarik aurkeztu ez delako.

### **2- FAKTURAK**

5.226.493 pta.ko zenbatekoa duen faktura-sorta aztertu da eta aho batez ondorengo erabaki da:

Lehenik.- Aipatutako sortan sartutako faktura bakoitzaren eta guztien gastua onestea.

Bigarren.- Faktura horiek dagozkien hartzekodunei ordaintzeko agindua ematea.

### **3.- OBRAK KONTRATATZEA**

Aldez aurretik Hirigintza-batzordearen aldeko txostena izanda, Arantz-Matxinbenta frontoi estaliaren birmoldaketa-obrak kontratatzeko baldintza plegua onestea eta deialdia egitea proposatu da.

Bildutako partaideek inolako oztoporik azaldu ez dutenez, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

1- Arantz-Matxinbenta frontoi estaliaren birmoldaketa-obrak kontratatzea, kontratazio-deialdia enkante bidez eginez.

2- Enkantea arautuko duten baldintza tekniko eta administratiboak onestea.

Dena dela lurra eskuratzeko Udalbatzarrean onartutako hitzarmena oraindik sinatu gabe dagoenez, erabakia honen baitan hartu da.

#### **4- HITZARMENA**

##### **a- Beti Bizi Elkartea**

Beti Bizi elkartearekin izenpetzeko hitzarmenaren zehastasunen berri eman da eta ondorengo iharduerei dagokienean eman ere:

Beasaingo jaietan aldizkaria.....867 pezeta

Bozketa eginda, aho batez onartu da, 1999ko aurrekontua onartzearen baitan eta San Silvestre kostua zehaztearen baitan.

#### **5- ASMUBE**

Ezagutzera eman da 1999ko otsailaren 25eko datarekin Asmube Beasaingo Emakumeen Elkartek, Beasaingo Udalak Etxe-Urbi duen aretoaren lagapena eskatu zuela bere ekintza sozialari dagokion iharduerak burutzeko eta aldi berean jakinarazi zuela lehendik Udalak lagatutako kale Nagusiko aretoa erabiltzeari utzi egin diola.

Inolako eragozpenik ez dagoenez, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik**. Beasaingo Udalak, ASMUBEri Udalak Etxe-Urbin duen aretoa lagatzen dio, lehen aipatutako helburua betetzeko inolako kontraprestaziorik gabe.

**Bigarren**. Horren ondorioz, lagapena prekarioan egingo da eta dohanik.

**Hirugarren**. Lagapenak urte beteko iraupena izango du, baina luzagarria izango da eragin duten inguruabarrak mantentzen badira.

**Laugarren.** Aretoaren egokitzapena ASMUBEn kontura izango da, eta bertan egiten diren hobekuntzak Udalarentzat izango dira aretoa Udalaren eskura pasatzen denean.

**Bostgarren.** Aretoa Udalaren eskura pasako da eta kalteordain-eskubiderik gabe pasa ere, premia handiagoko beharizan publikoetarako behar denean.

**Seigarren.** Eskuratze-errekerimendua, bi hilabeteko aurrerape-narekin egingo da.

**Zazpigarren.** Errekeritutako eskuragarritasuna ez betzea, atzerapen-egun bakoitzeko 2.000 pta.ko kanonarekin zigortua izango da eta Erakundea desgaitua geldituko da etorkizunean beste lagapen batzu lortzeko.

**Zortzigarren.** Aretoaren garbiketa eta mantenimendua behar bezalako kontserbazio baldintzetan ASMUBEn kontura izango da.

**Bederatzigarren.** Energia elektrikoa, ura eta gas naturalaren zerbitzuak ere, Beasaingo Udalak ordainduak izango dira.

**Hamargarren.** Hizkuntz Politikako irizpideak jarraituz, ekintzak eta publizitatea ere, euskeraz izaten saiatuko dira eta horrela ez denean, euskerak lehenatasuna izango du, letraren tamaina, iragarkien denbora, e.a.

**Hamaikagarren.** ASMUBEk, herriko toki eta bideetan publizitatea jartzeari buruzko ordenantza erregulatzailerak betetzeko konpromezua hartzen du, baimendutako tokietatik kanpo kartelak ipintzea debekatuta baitago.”

## **6- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

### **NORTASUN AGIRIA**

Ezagutzera eman da Beasainen nortasun agiria egitea posible izango dela, Gobernu Zibilekoek hilean bi aldiz horretara etorri direlako. Baina hori egin baino lehen, orain bederatzi urte Beasainen nortasun agiria berri zutenei aukera emango zaie berriro ere hemen berritzeko. Horretarako eskaerak jaso behar dira eta lan hori egiteko eta ondoren jendeari abisatzeko pertsona bat kontratatuko da. Pertsonak horrek printzipioz goiz eta arratsalde lana egingo luke, zerbitzu hobeagoa eman ahal izateko.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera goizeko bederatziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.